

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

2607

EBAZPENA, 2021eko apirilaren 13koa, Lehendakartzaren idazkari nagusiarena, Lehendakartzako behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Concepcion Quintana Aguirre andrea Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko aholkulari izendatzea (kodea: 5269; dotazioa: 1; maila: zuzendaria), Lehendakaritzan.

Bigarrena.– Egin beharreko lanak aholkularitza-lanpostu bati dagozkionak izango dira, baita atxikita dagoen eremuko espezifikokoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, baldin eta horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goi Kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta/edo 5.1 eta/edo 5.2 artikuluetan jasota dauden aurreikuspenen bat edo guztiak aplikatu dakizkion.

Laugarrena.– Izendapen honek 2021eko apirilaren 14an izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, ebazpen honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta geratuko da izendapena egiten duen organoaren titularrak kargua uzten duenean, lehenago edozein unetan harremana baliogabetzeko aukerari uko egin gabe.

Bosgarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamundetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 13a.

Lehendakartzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.